



BARREN  
TOKIKOM



# Poesia bidelagun

Telmo Fernandez





# MINTXETA TABERNA

Orain bai, uda hasi da!!

Ordutegia: goizeko 11:00etatik aurrera.

**SANDWICH-AK  
RAZIOAK  
HANBURGESAK  
OGITARTEKOAK  
PINTXOAK  
TARTAK**

Erreserbetarako:

**943 747 447**



## MEKANOSA

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA  
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



## LAGUNAK ZERBITZU BERRIA!

Udarako arropa konpontzea behar duzu?  
Ekarri eta zure neurria utziko dizugu.  
Edozein ehun konpondu ahal izateko makinak ditugu.  
Barrenak hartu, arropak estutu edo zabaldu,  
kremailerak konpondu edo jarri...  
Mota guztietako arropetan egiten dugu lan, alkandorak,  
galtzak, soinekoak, jakak, mailotak...

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978  
[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)




**Makillaje-zerbitzua!**  
Orain ere  
Idama ileapaindegian.

Hitzordua hartzeko:  
646 563 706

Urazandi 9, behea - Elgoibar - [www.kimabioestetika.webkaibox.com](http://www.kimabioestetika.webkaibox.com)



# ETXEBERRIA EHORZKETA-BEILATOKIA

**943 741 327 (24 orduz)**

**635 756 295**

**629 635 203**

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU

## Zertarako matematika ikasi?

ren garrantzia bestelako oinarrien gainean defendatzen duenik.

1917ko Errusiako Iraultzaren garaian, Odessa inguruko herri batera janari bila joan zenean, iraultzaile antiukraniartzat hartu eta atxilotuta eraman zuten miliziano batzuek Igor Tamm. Hauen buruak galdekatu egin zuen eta ogibideaz galdetu zionean matematikaria zela erantzun zion Tammek. Badirudi milizianoen buruak ez ziola esandakoa sinistu eta hurrengoa proposatu ei zion: "Funtzio bat  $n$  gaiko Taylor-en polinomio baten bidez hurbiltzerakoan egiten den errorea kalkulatu. Ondo egiten baduzu

libre utziko zaitugu; bestela, fusilatu egingo zaitugu". Bai eskatutakoa bizkor egin ere, hantxe bertan makurtu eta honddarretan idatziz. Eta libre joaten utzi zioten agindutako moduan. Ez baitzen edonor gure Igor Tamm: 1958an fisikako nobel saria irabazi zuen Cherenkov efektua aurkitzearen. Igor Tammek berak kontatzen ei zuen anekdota hau. Ez zuen, ordea, ezagutza matematikoak zituen lider milizianoa zein zen jakiterik izan.

Kontuz, beraz, nori galdetzen zaion matematika ikasteak zertarako balio duen.

Askotan errepikatzen den galdera da goiko hau. Garrantzitsua izan daiteke matematika ikastea, gariko zientzia eta teknologiarri lotutako kuestio asko ulertzeko ezinbesteko aurrebaldintza delako. Hala ere, badirudi erantzun hau gutxi batzuentzat egokia izan daitekeen bitartean, populazioaren zati handi batentzat lekuz kanpo dagoela. Bada, ordea, matematika ikastea-

*"Badirudi erantzun hau gutxi batzuentzat egokia izan daitekeen bitartean, populazioaren zati handi batentzat lekuz kanpo dagoela"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Eusko Legebiltzarreko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► OSASUN ZERBITZUEI ESKER MILA

Lerro hauen bitartez, gure eskerrik beroena eman nahi diegu, gure herriko ambulatorioan lan egiten dutenei. Orain dela gutxira arte, zorionez, osasun zerbitzua gehiegi erabiltzeko beharrik ez dugu izan, baina azken bolada honetan sarri bertaratu behar izan gara.

COVID-19 honek harrapatu gaituen honetan gauzak asko aldatu zaizkigun arren, eta protokoloak zaindu eta bete behar ditugun arren, eta arren luzeak... ambulatiora joan edo telefonoz deitu izan dugun bakoitzean beti atenditu gaituzte ondo baino hobeto, goxogoxo, arduraz, zintzotasunez, profesionaltasunez... hobeto ezin.

Sendagileak, erizainak... denek erakutsi digute profesionaltasuna eta gizatasun handia, batez ere azken hori. Ez dut hitzik adierazteko nola zaindu gaituzten, nola sentiatarazi gaituzten.

Botikariari ere eman nahi dizkiogu eskerrak, bikaina delako, eta halakoxea izan delako gurekin ere. Ofizios eta afizios jendeari laguntzen; aparta.

Horrela ba, denei mila esker eta ja-

rraitu zuen lana horrela betetzen eta herritarroi bizitza errazten.

Muxu handi bat familia osoaren partez.

U.A.

### ► PARDELAK BIRZIKLATZEAREN ALDEKO SINADURA BILKETA

Maiatzaren 17an Birziklatzearen Nazioarteko Eguna izan zen eta testuingu honetan, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak ekimen bat jarri du martxan: *Osoigo* izeneko plataformaren bidez pardelak birziklatzearen aldeko sinadura bilketa.

Gipuzkoako ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiori galdera hau zuzendu diote eta bere erantzuna jasotzeko 500 sinadura lortu behar dira: "Zergatik ez du Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak (GHK) pardelak birziklatzeko zerbitzuaren prozesua abiatzen?"

GHK-k pixoihalak eta higiene-produktuak birziklatzeko zerbitzua bere gain hartzea eskatzen du mugimenduak, gainerako hondakinekin egiten den bezala. Hainbat udalerrietan bereizita jasotzen dira hondakin horiek eta beraz herrita-

rrok gai gara bereizteko, prestatuta gaude.

Osoigoko eskaera babesteko lehen-dabizi errejistratu egin behar da. Sartu <https://www.osoigo.com/es/asociaciones/ipar-haizea> helbidean eta goran eskubian luparen ondoan dagoen *únete*-n sartu. Bete zuen datuekin eta ondoren email bat jasoko duzue konfirmazioa emateko. Minutu bat besterik ez da. Eman zuen babesa pardelen birziklapenari! Ingurumenak eskertuko digu.

A. I. Z.



## Carmen Bastarrika Agirrezabal

2021eko maiatzaren 31n hil zen, 86 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

**Amama, zure ondoan bizitzea erraza izan da.**

**Zu maitatzea erraza izan da.**

**Zuk beti eman diguzu zure onena, maitasuna.**

**Mila muxu, amama.**

Etxekoak





Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**O**ndo aparkatzeko lekua egon arren, gaizki uzten dute autoa Urazandin: "Badakigu Urazandin aparkatzeko arazoak daudela, baina ondo aparkatzeko lekua egon arren, jende askok uzten du autoa behar ez den lekuan, batez ere, Herri Eskolako sarrera-irteera orduetan. Umeak eramatera edo jasotzera joaten diren gurasoek ez dute ezer errespetatzen, eta edozein lekutan uzten dute autoa, gainerako auzotarrei traba eginez. Eta une horretan Udalbusa tokatzen bada, arazoak handitu egiten dira. Jendeari eskatu nahi nioke autoa behar den lekuan aparkatzeko".



**M**aalako parkeko txirristada hondatuta dago: "Badira bizpahiru aste Maalako parkeko txirristada bere lekutik aterata dagoela. Erabileraren poderioz gauzak hondatzea ulergarria da, baina ez dugu ulertzen zergatik luzatzen diren horrenbeste haur parkeetako konponketak. Lehenago ziburuak izan ziren, eta Lekuederreko sokak ere erabili ezinda egon ziren luzaroan. Umeen guneak mimo gehiagorekin zaintzeko eskatu nahi nioke Udalari".



**D**ena zikin-zikin uzten dute botila festaren ondoren: "Denok izan gara gazteak, baina ez nuke esango hain zikinak izan garenik. Gazteek festa behar dutela badakigu, eta tabernak itxita dauden honetan, herriko txoko ezkutuenetan batzen direla ere bai, festa egiteko, baina ez dago eskubiderik egiten dutena egiteko. Dena zikin-zikin lagatzen dute, eta auzotarrek jasan behar izaten dugu hori. Eskatu nahi nieke gazteei zaborra zakarrontzira botatzeko, mesedez".



**E**skerrik asko pentsioen alde borrokan ari zareten guztioi: "Pentsiodunak pentsioen aldeko borrokan ari zarete tinko, eta eskerrak eman nahi dizkizuet. Guztioi eragiten digun arazoa da, eta bereziki, gaur egungo gazteak izango dira kaltetuenak, baina mobilizazioetan ez da gazterik ikusten. Kuriosoa, eta aldi berean, triste da, pentsioa ziurtatuta dutenak izatea etorkizuneko pentsioen aldeko borrokan ari direnak. Eskerrik asko".

## Pablo Acuña hiltzeaz akusatutako gizonak errudun dela onartu du, baina ukatu egin du hil nahi izan zuenik

2019ko maiatzean Elgoibarko kaleetan gizon bat labankadaz hiltzeaz eta emakume bat zauritzeaz akusaturiko gizon baten aurkako epaiketa hasi zuten joan zen astean, eta akusatuak aitortu egin du errudun dela, baina hil nahi izana ukatu du. Maiatzaren 11ko goizaldean izan zen. Elgoibarko taberna batean hildakoarekin eztabaida bat izan eta ordu batzuetara, auzipetuak labankada bat eman zion, eta emakumeari arma zuriz hiru zauri eragin zizkion. "Hain mozkortuta nengibilen, ez ditut orduak ere gogoratzen", azaldu zuen auzipetuak.

Auzipetuak azaldu zuenez, gertatutakoaren ostean "besterik gabe" ibiltzen hasi zen eta mendi martxa batean parte hartzen ari ziren batzuekin bat egin zuen, Karakate gainean. Izan ere Elgoibarko Mendi Itzulia egiten ari ziren egun hartan makina bat mendizale, Morkaikoren Egurenaren barruan. Ertzaintzak 11:24an atxilotu zuen, hilketarekin zerikusia zuelakoan.

## Mintxetako berdegunea urte osoan zabaltzea baztertu du Kirol Patronatuak, "eremuak ez dituelako betetzen horretarako segurtasun, zerbitzu eta azpiegitura baldintzak"

Mintxetako igerilekuetako berdegunea urte osoan zabaltzeko eskaera egin zuen EH Bilduk Udalean, eta *Change.org* plataforman ere eskaera hori babesteko sinadura bilketa abiatu dute herritarrek. Kirol Patronatuak gaia aztertu du, eta aukera hori baztertu egin du, "eremuak egun ez dituelako betetzen segurtasun, zerbitzu eta azpiegitura baldintzak urte osoan, 24 orduz, zabalik egoteko". Hala nabarmendu du Gorka Garaizabal Kirol zinegotzi eta Udal Kirol Patronatuko presidentea: "Lehenik eta behin, urte osoan zabaltzeko, segurtasun neurri berezi ugari bete behar ditu eremuak, eta egun, ez dira ematen. Azpiegiturei dagokienez ere, komunak eta bestelakoak behar lituzke. Pertsonal gastuak ere kontuan izan behar dira: garbiketa, mantentze lanak... Bertan antolatzen diren hainbat ekintzetan ere eragin zuzena izango luke, esaterako Juan Mugerza Krosean. Planak aldatzea ekarriko luke, igerilekuko eremuaren edukiera ia erdira murriztuz. Beraz, Udal Kirol Patronatuak ebatzi du egun ezinezkoa dela berdegunea urte osoan zabaltzea, egin nahi izanez gero, inbertsio nabarmena behar delako egin elgoibartarren segurtasuna bermatzeko, eta gainera, udako denboraldian zuzenki eragingo lukeelako. Zerbitzua hobetzen jarraitzeko konpromiso irmoa dugu, eta bide horretan jarraituko dugu".

## Odol-emaileak omendu dituzte Elgoibarren eta Mendaron



Pandemiagatik aurten ere ezin izan dute egin odol-emaileak omentzeko Eibarren egin ohi duten ekitaldia, baina horren orde, herrian bertan omendu zituzten domekan emaileak Elgoibarren eta Mendaron. Elgoibarren, Jubilatuen Biltokian egin zuten ekitaldia eta hamabost emaile nabarmendu zituzten. Odola hogeita bost aldiz emateagatik omendu dituzte: Xabier Alberdi Moreno, Daniel Alonso Castro, Elena Eguren Iriondo, Mikel Elustondo Lejardi, Iker Izagirre Irusta, Oihana Larrea Arana, Ana Maria Martin Leiva, eta Ainara Sanchez San Martin. 40 aldiz emateagatik: Nerea Juaristi Baskaran eta Paki Lucha Linares. 50 aldiz emateagatik: Alberto Garate Intxausti, Francisco Mugerza Aizpurua eta Marciano Rodriguez Santas. 75 aldiz emateagatik: Manuel Astray Portos eta Ricardo Diego Garamendi. Mendaron, berriz, plazan egin zuten ekitaldia eta bi lagun omendu zituzten, 25 aldiz odola emateagatik: Asier Lazarobaster eta Unai Aizpurua. Elkartetik, eskerrak eman dizkiete emaileei eta udalari emandako laguntzagatik.



## Salbuespenezko espetxe politika amaitu eta larri dauden presoak askatzeko eskatu du Sarek, bizikleta martxa baten bidez



Oñatitik Elgoibarrera arteko bizikleta martxa antolatu zuen Sarek iganderako, *Ibilian Ibilian* etxerako bidean dinamikaren barruan. 80 bat txirindularik hartu zuten parte eta salbuespenezko espetxe politika bertan behera lagatzeko eta larri dauden presoak askatzeko eskatu zuten. Oñatiko Foruen Enparantzatik abiatu zen tropela 10:00etan eta eguerdirako ailegatu zen Elgoibarrera, Maalako parkera. Ekitaldia, hala ere, Kalebarren plazan egin zuten. Bizikleta martxako parte hartzaileei eskerrak eman ostean, Joseba Arregi eta Sebas Etxaniz adineko preso senideak, deportatuta dagoen Josu Larizen eta gaixo dagoen Gotzon Telleriaren senideak igoarazi zituzten oholtzara, lore-sorta bana emateko. Ondoren, Judas Argarate taldeak bi kantu jo zituen.

## Eskolara bidea koloretako oinatzez bete dute Mendaron, Arno Guraso Elkartearen ekimenez



Larunbaterako, eskola bidea markatzeko deia egin zuen Arno Guraso Elkarteak, eta 140 bat umek parte hartu zuten ekintzan, dozenaka gurasok lagunduta. 10:30ean elkartu ziren plazan, eta auzo bakoitzeko talde bat osatuta jardun ziren haurrak eta gurasoak lanean. Auzo bakoitzetik ikastolara arteko bidea markatu zuten, bai eta bide horretan dauden puntu arriskutsu edo beltzak ere. Bidean, Ameikutz musika eskolako txistulariak eta soinu joleak izan zituzten lagun, eta bukaeran, lango Azkue magoaren saioarekin gozatu ahal izan zuten guztiek ikastolako jolastoki handian. Astelehenean, berriz, proba pilotua egin zuten, eta orduan ere musika eskolako txistulariak izan zituzten lagun. Eskolara Bidea proiektua Ikastolari eta Udalari ere aurkeztu dio Arnok. Irakasle eta hurrek geletan landu dute gaia eta herriko auzoak hobeto ezagutzeko baliatu dute aukera. Udalak, berriz, puntu ilunetarako irtenbideak topatzeko konpromisoa agertu du. Arnoren aurretik, EH Bildutik ere aurkeztua zuten antzeko egitasmoa, Haurren Hiria proiektuaren baitan, baina ez zuen aurrera egin.

## Autodefentsa feministari buruzko ikastaroak Mendaron

Maskulinitatearen eta autodefentsa feministaren inguruko ikastaroak antolatu ditu Mendaroko Udalak ekainerako. Eguenean izan zen maskulinitateari buruzkoa. Piper Txuriak elkarteko Juanma Feitok zuzendu zuen saioa eta genero maskulinoaren eraikuntzarako oinarriko ezaugarriak zerrendatu eta gizonei buruzko sinesmenek haiengan duten eragina aztertu zuen. Autodefentsa feministari buruzko ikastaroa, berriz, bi saiotakoa izango da eta saiook bi barikuetan izango dira: ekainaren 11n eta ekainaren 18an. Emaginek zuzenduko ditu azkeneko bi saiook. Pentsamendu kritikoa sustatzen duen elkarte da Emagin, jendartea eraldatzeko lan egiten duena. Mendaron emango duten saioan jarrera matxistak identifikatzeko eta haiei aurre egiteko tresnak aurkeztuko dituztela aurreratu dute, eta espazio bat sortu nahiko luketela emakumeek euren bizipenak partekatzeko, elkarri entzuteko eta elkarrekin hainbat estrategia lantzeko. 17:00etatik 20:30era izango da ikastaroa, udaletxean, baina parte hartzeko izena eman beharko da. Horretarako bi aukera eman dituzte: aurrez aurre, udaletxera bertara joanda, edota Internet bidez, Mendaroko Udalaren webgunean sartuta. Ikastaroa elebitan izango da.

## Bihar zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak



“Pandemia garai honetan herritarrei aire librean aisialdiaz gozatzeko aukera emateko asmoz”, Elgoibarko Udalak ohi baino lehenago zabalduko ditu aurten Mintxetako igerilekuak: ekainaren 5etik irailaren 12ra. Asteazkenetik 11:00etan zabalduko dituzte, eta asteburuetan 10:00etan. Itxi, berriro, 20:30ean itxiko dituzte, irailean izan ezik, 20:00etan itxiko dituzte eta. Aurten, bestalde, ur jolasen gunea ere zabalduko dute. Berdegunea iaz bezala partzelatuta egongo da, baina aurten sei laguneko taldeak sartu ahal izango dira partzela bakoitzean. Musukoa igerilekurako joan-etorrietan derrigorrezkoa izango da, baina igerileku gunean bertan, ez. Patronatuko abonatuak sarrera libre izango dute. Interesatuak udako bonoa egin dezakete.

## Elgoibartik eta Mendarotik ere igaro da Gipuzkoako pentsiodunen martxa



Maiatzaren 24an abiatu zen Errenteriatik Gipuzkoako pentsiodunen bizikleta martxa eta joan zen egunean igaro zen Elgoibartik eta Mendarotik. Elgoibarren, aureskua dantzatu zieten San Lazaro egoitza aurrean, eta ondoren manifestazioa egin zuten, *Pentsio duinak! Murritzetarik gabe!* lelopean. Toledoko itunaren aurka agertu ziren, eta osasungintza publiko “indartsua” eta zaintza-lan duinak eskatu.

## Organo Emaileen Elkarteak mahaia jarriko du bihar

Eguaztenean, hilaren 2an, izan zen Organo Emaileen Nazioarteko Eguna eta egun horren harira, ALCER-Gipuzkoa elkarteak mahai informatiboa jarriko du bihar, zapatua, Elgoibarren, King Kong azpian. 10:00etatik 14:00etara egongo dira bertan elkarteko boluntarioak, organo emaile nola egin azaltzen, bai eta gaur egun dagoen behararen inguruan ohartarazten ere.

## Komun publikoa Elgoibarren, bidegorria hasten den lekuan

Santa Ana kalearen amaieran, Elgoibar eta Eibar arteko bidegorria hasten den lekuan, komun publikoa jarriko du Elgoibarko Udalak. Lanek 54.000 euroko (BEZ barne) aurrekontua izango dute. Baldintza-agirian jaso dutenez, erabilera mistoko komuna izango da eta kanpoan, bi lagunentzako pixatoki bat edukiko du. Litzitazioa eskaintzak aurkezteko azken eguna ekainaren 14a izango da eta udan jartzea nahi lukete.

## Maalako parkeko barandan burdin-sareak jarri dituzte

Maalako parkeko barandan burdin-sareak jarri ditu Udalak, Deba ibaira plastikoa eta bestelako zaborrak jausi ez daitezkeen, eta era berean, umeak barandan gora igotzea zailtzeko sareak ere jarri ditu. Haurren Kontseiluak Eskolako Agenda 21en barruan egindako eskaera bati erantzun dio modu honetan Udalak. Obra honek 5.808 euroko kostua izan du (BEZ gabe). Podemosek berri ona dela esan du. Sare sozialen bidez esan dute beraiek 2019an egin zutela eskaera.





## ▶ Herriko Antzokian aurkeztuko dute eguaztenean, 'Larrugorritan' telesaila

Jone Arriola (Elgoibar, 1988) dago 'Larrugorritan' telesailaren atzean. Ikus-entzuzko Komunikazioan graduatua da, eta ikasketa amaierako proiektuari esker, Tabakalerak antolatzen duen 2de0 lehiaketan sari bat eskuratu zuen. Sari horri esker gauzatu ahal izan du 'Larrugorritan' telesailaren aurreneko atala. Gazteen bizipenak ardatz dituen telesaila da, eta emakumea "den bezalakoa" islatzen du. Eguaztenean aurkeztuko dute telesaila Herriko Antzokian, 19:00etan, eta jarraian, aktore protagonistekin mahai-ingurua egingo dute.



*Larrugorritan* Telesaileko aurkezpen atala edo teaserra emango dute eguaztenean Herriko Antzokian. 18 minutuko atala izango da, eta ikusleek pertsonaiekin lehenengo kontaktua egiteko aukera izango dute. Era berean, seriea garatuko den ingurua ere aurkeztuko

dute, eta amaieran, telesailaren trama nagusia izango dena hasiko da. Jone Arriola telesailaren zuzendariak esan du telesaila euskal publikoari aurkezteaz gain, haien iritzia ere jaso nahi dutela, eta horretarako, proiektzioaren ostean, inkesta bat egingo diete ikusleei.

"Proiektuak etorkizunean izango duen ibilbidean, ikusleek emango diguten *feed back* hori kontuan hartzeko aukera izango dugu, eta egindako lanaren emaitza publikoaren begietatik begiratzeko modua ere bai".

### Mahai-ingurua

Orain arte egin eta ekoitzi duten lana estreinako z jendaurrean aurkezteaz gainera, mahai-inguru bat ere antolatu dute. Garazi Ayesta kazetari elgoibartarrak gidatuko du solasaldia. Hizlariak, berriz, Jone Arriola bera eta lau aktore izango dira: Unai Arrieta (Niko), Sara Nieto (Ali), Alazne Astorga (Lara) eta Aiora Enparantza (Mai). Publikoak solasaldian parte hartzeko eta iritzia emateko aukera izango du.

Herriko Antzokiko aforoa 180 lagunetara mugatua dago, eta hortaz, aurrez izena emateko eskatu dute antolatzaileek. Interesatuak helbide honetara idatzi behar dute, joango direnen izen-abizenak, bizilekua eta telefono zenbakia zehaztuta: [larrugorritanseriew@gmail.com](mailto:larrugorritanseriew@gmail.com). Sarrerak 3 euroan salduko dituzte. Eguinean bertan ere egongo da sarrerak erosteko aukera, leihatilan. Izena aldeztu aurretik eman dutenek, NAN agiria erakutsi beharko dute leihatilan.



## ▶ TELMO FERNANDEZ

IDAZLEA

11 urterekin esan zion amari idazle izan nahi zuela, eta 22rekin bete du bere ametsa Telmo Fernandez elgoibartarrak. Denezik idaztea gustatzen zaio, baina bereziki, poemak idatzi izan ditu. Urteetan idatzitako poema horiek bildu, eta 'Cada sitio' poema bilduma kaleratu berri du. Argazki album bat bezala deskribatu du Fernandezek liburua, eta poema bakoitzak bizitzako une eta leku jakin batetara eramaten duela esan du. Bere adin inguruko gazteak egoera askorekin identifikatuko direla uste du, baina edozein adineko irakurleentzako moduko liburua dela nabarmendu du. Madrilen bizi da gaur egun. Ikasketa amaierako proiektua egiten ari da, eta libre daukan denbora idazten ematen du. Lehenengo liburua kaleratu du, eta espero du azkena ez izatea.

- AINHOA ANDONEGI -



# “Umetatik neukan ametsa bete dut liburu honekin”

### ◆ Nondik datorkizu idazteko zaletasuna?

Ume-umetan ez zitzaidan irakurtzea gustatzen, ume gehienei bezala. Ama beti izaten nuen gainean, irakurtzeko esaten, eta halako batean mundu berri bat deskubritu nuen. Harry Potter liburua irakurri nuen, eta izugarri gustatu zitzaidan. Bosgarren mailan nengoela uste dut, eta liburu hura irakurtzea inflexio puntu bat izan zen niretzat. Garai berrean, gaztelaniako lan bat agindu zigiten, ipuin bat idaztea, eta gelan ez bagenuen bukatzen, etxean amaitzeko esan zigun irakasleak. Oso gustura idatzi nuen ipuin hura, eta une hartan konturatu nintzen zenbat gustatzen zitzaidan

idaztea. Irakurtzeko zaletasuna hartu nuen, eta argi ikusi nuen idazlea izan nahi nuela. 13 urterekin literatura blog bat sortu nuen, eta lau bat urtez aritu nintzen bertan idazten. Esan dezaket idazten hasi nintzenetik gaur arte ez diodala idazteari laga.

### ◆ Nolatan idatzi dituzu poemak?

Ba ez dakit! Betidanik eleberriak irakurri izan ditut gehiago, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ere bai, bateron bat. Baina 15 bat urterekin poesia irakurtzen hasi nintzen, eta idazteko saiakera egin nuen. Urteetan aritu naiz poemak idazten, koadernoan, ordenagailuan, telefonoan... edozein lekutan eta edozein momentutan idazten dut.

Ideiak apuntatzen ditut, eta gero, denbora dudanean garatzen dut ideia hori. Gertatu izan zait baita ere ideia bat eduki, lau hitz apuntatu, eta gero garatzen hastean ez gogoratzea zer idatzi nahi nuen!. Baina dena idatziz jasotzea gustatzen zait, eta asko neukan idatzita. 2019 amaiera aldera pentsatu nuen polita izan zitekeela idatzita neuzkan poema guztiak bilduma batean jasotzea. Konfinamenduan ere asko idatzi nuen, eta itxialdi amaierarako prest neukan bilduma.

### ◆ Zer izan da estreinako liburua argitaratzea?

Izugarria izan da, sinestezina. Cuadranta argitaletxeak eman dit ametsa be-



tetzeko aukera, eta sekulakoa izan da. Argitaletxe askotara bidali nuen eta hauek berehala esan zidaten gustatu zitzaizela eta argitaratuko zidatela. Lorik egin ezinda egon nintzen emozioaren emozioaz. 11 urterekin nuen ametsa bete dut liburu honi esker, eta oso pozik nago. Nire ametsa argitaratzea zen, ez zitzaidan inporta gero salduko zen edo ez, liburuak kaleratzea zen niretzat garrantzitsua. Salmentak ere ez doaz gaizki. Hasieran uste nuen etxeok eta lagunak bakarrik erosiko zutela, eta horrekin ere konformatuko nintzateke, baina uste baino jende gehiagok erosi du liburuak. Imaginatzen dut jendea Pixintxura joaten, urteetan ni joan izan naitzen modura liburuak erostera, eta han nire liburuak egotea sekulakoa iruditzen zait. Formato digitalean ere eskuratu daiteke, gaur egun jende askok irakurtzen duelako digitalean. Ni neustalgikoa naiz eta gustatzen zait paperean irakurtzea. Argazkiak ere paperean inprimatzea gustatzen zait. Formato fisikoa gustatzen zait, eta uste dut irakurle askok oraindik ere baloratzen dutela formato fisikoa. Hala ere, ulertzen dut formato digitalean bizi garela eta bloga eta webgunea ere sortu ditut.

◆ **‘Cada sitio’ ipini diozu izena. Zer jaso duzu bertan?**

Liburuan zehar leku eta garai desberdinei egiten diet erreferentzia, eta liburu hau imaginatu dut etxean dauzkagun argazki albumak moduan. Adibidez, 2005eko argazkiak ikusten ditudanean, urte hartan egin nuenaz gogoratzen naiz, eta bildumako poemak irakurtzen ditudanean gauza bera sentitzen dut. Poema bakoitzak eramaten nau momentu eta leku konkretu batera, eta bilduma hau nire bizitzaren errepasso moduko bat da.

◆ **Zein gairi buruzko poemak irakurri dituzu?**

Denetik idatzi dut. Buruan bueltaka daukadan edozein gaik balio dit idazteko, baina poema gehienak neraberezako amaierako garaian kokatu ditut. Maitasunari buruzkoak, nagusi egiteari buruzkoak... 18-20 urteko gazte batek

bizi dituen egoerei buruzko bilduma da, azken batean. Horregatik uste dut adin tarte horretako jendea identifikatuko dela gehiago liburuarekin, batez ere gure belaunaldiko informazioa ematen dudalako, baina gainerakoek ere irakurtzeko modukoa dela esango nuke.

*“Lehenengoa idatzi dut, baina nahiko nuke azkena ez izatea”*

◆ **Poemak idazteko teknika zaintzen duzu ala librean aritzen zara?**

Tarteka idazten ditut sonetoak, adibidez, dagokion neurri eta errimarekin, baina gehienetan librean idazten dut. Errimari ematen diot garrantzia, poema batzuk gero abesti ere bihurtzen ditudalako. Gitarrarekin dakidan apurra jotzen dut, eta ordenagailuarekin sartzen dizkiot soinua. Umetan ez nuen nahi izan musika eskolara joatea, baina apur bat nagusitu nintzenez sartu zitzaidan gitarra jotzen ikasteko gogoak, eta pare bat urte egin nituen ikasten. Poema batzuk musikatze adina moldatzen naiz.

◆ **Ikasketak euskaraz egin dituzu, baina liburuak gaztelaniaz idatzi duzu. Zergatik?**

Euskaraz zein gaztelaniaz ondo moldatzen naiz. Amarekin umetatik euskaraz egin izan dut eta aitarekin gaztelaniaz, beraz, bi hizkuntzak menderatzen ditut, bai ahoz eta bai idatziz, baina azken urteetan gaztelaniaz gehiago idatzi dut. Irakurri ere gehiago egiten dut gaztelaniaz, eta horregatik izango dela uste dut.

◆ **Etxeok eta ingurukoek nola hartu dute zure lehenengo liburuak?**

Nire ingurukoentzat beti izan naiz “lagun idazlea”. Badakite idaztea dudala pasio, eta ni bezain beste poztu dira liburu honekin. Bazekiten zertan ari nintzen, eta askok pentsatzen zuten egunen baten lortuko nuela zerbait argitaratzea.

◆ **Orain Madrilen bizi zara. Uste duzu Madrilen aukera gehiago izango duzula?**

Idazle izatetik bizitzea oso zaila da. Nik LEIN ikasi dut Oñatin eta ikasketa amaierako proiektua egiten nago orain Madrilgo enpresa batean. Nire ikasketek ez dute literaturarekin zerikusirik. Baina Madrilen oso gustura nago. Kultur eskaintza handia dago hemen, askotariko jendea bizi da eta aukera asko eskaintzen ditu hiri honek. Proiektua amaitu ostean lanerako aukerarik badakut, ez litzaidake inportako hemen geratzea.

◆ **Lehenengoa idatzi duzu. Aurrera begira, zein dira zure asmoak?**

Bai, lehenengoa kaleratu dut eta horrekin oso pozik nago, baina nahiko nuke azkena ez izatea. Eleberri batzuk ere idatzita daukat eta gustatuko litzaidake horiek ere argitaratzea. Nobela beltza, fantasiazko beste eleberri bat... gai desberdinetakoak ditut idatzita. Askotan esaten dute zailena lehenengoa argitaratzea izaten dela, eta nik hori behintzat lortu dut. Orain, nire burua ezagutzera eman behar dut, argitaletxeetan ezagutu naitzen. Gustatuko litzaidake idaztetik bizitzea, baina hankak lurrean ditut, eta badakit hori oso zaila dela. Nik lanean jarraituko dut, eta saiatuko naiz gauzak ondo egiten, baina idaztetik bakarrik bizitzea ia ezinezkoa da. Liburu asko saldu behar dira horretarako, eta horrez gain, hitzaldiak edo tailerrak ere eman behar dituzke. Poliki-poliki joango naiz.



# Mendaro euskaldun(ago)tzen



**Arno guraso elkarteak Mendaroko Udalarekin eta UEMArekin hasitako elkarlanari esker, euskara ikasten ari dira hamaika bat lagun Mendaron, Debabe Udal Euskaltegiko Aldo Aldai irakaslearekin. Apirilaren 12an egin zuten aurkezpena eta biharamunean izan zuten lehen euskara eskola, udaletxean bertan. 40 orduko ikastaroa da, oinarri-oinarrizkoa, eta astean birritan elkartzen da taldea. Ekainaren azkenera bukatuko dituzte eskolak, baina ilusio handiz batzen egon direla aitortu dute guztiek eta nahiko luketela irailean jarraipena izatea honek.**

- AINARA ARGOTIA -

**M**endaro Ikastolako hizkuntza aniztasunaren mapa osatzeari ekin zion urtarilean Arno Guraso Elkarteak Ikastolarekin elkarlanean, eta blogean ([www.arnogurasoelkartea.eus](http://www.arnogurasoelkartea.eus)) egitasmo haren berri emateko zabaldu zuten mezuari lau gurasok erantzun zioten euskara ikasi nahiko luketela esanez. Huraxe izan zen abiapuntua. Ondoren, otsailean, deialdia zabaldu zuten guraso elkartetik, euskara ikasteko gogoz zeudenak zenbat izango lirartekeen jakiteko, bai eta haien beharrak eta haien aukerak aztertzeke ere. Erraztasunak eman nahi zizkieten euskara ikasteko. Izan ere, interesa agertu zuten lau lehenengo haiek haur txikien guraso ziren, herrira etorri berriak, lana eta familia kontziliatu ahal izateko sarerik ez zutenak inguruan, eta hori gabe, nekez sartu ahal zirenak bestelakotan. Aldi berean, baina, ahalik eta talde homogeneousena sortu nahi zuten, bestela euskara ikasi nahi dutenek atzera egiteko arriskua ikusten zutelako eginahal horretan.

Bi baldintza horiek betetzea, baina, ez da erraza, eta are gutxiago Mendaroren ezaugarrietako herri batean. Mendaroko Udalak urtero egin izan du azkeneko urteotan euskara eskolak

sortzeko deialdia irailean, baina maila beretsuko zazpi lagun elkartu behar ziren taldea osatzeko, eta azkeneko hiru urtean ez da baldintza hori bete. Horren inguruko gogoeta ere egin zuten Euskara Taldetik, eta hausnarketa horren emaitzak eta gurasoekin egindako solasaldietan batutako informazio guztia bildu eta Udalarari eta UEMAko teknikariari aurkeztu zioten. Euskara ikasteko gogoia agertu zutenei lehenbailehen erantzun behar zitzaie jaso zuten guraso elkartean, ezin zela ilusio hori apaltzen laga, eta hausnarketa horrekin bat egin zuten udaletxean.

Halaxe sortu zen elkarlana hiru eragileon artean. Hutsetik euskara ikasi nahi zutenenentzako 40 orduko ikastaro bat lotu zuten Udalak Debabe Udal Euskaltegiarekin eta izena eman zutenen ordutegi beharrak kontuan hartuta, eskolak astean birritan izango zirela adostu zuten: martitzen eta egunetan, 14:30etik 16:30era, haurrak ikastolan zeuden bitartean. [Ekainean, eskola ordurik gal ez dezaten, zaintza zerbitzua eskaini die Arnok]. Gehienez hamabi lagunentzako lekua izango zela jakinarazi zuten Udalak, baina ikastaro honi irailean jarraipena emateko asmoa agertu zuten. Hala nahi lukete gurasoek.



Euskara eskoletan gehienez hamabi laguntzako lekua izango zela zabaldu zuen Udalak, eta bete egin zen taldea. Bakarren bat aurrez ibilia zen euskaraz ikasten, eta besteren batek eskolan jasotakoa zekarren, baina gehientsuenentzat zerotik hasia izan da. Errazik ez dagoela aipatu dute guztiek, baina merezi duela sinetsita daude, eta ikasten jarraitzeko gogoz daudela nabarmendu dute. Joan zen eguenean izan zen BARREN eskolan, eta han bildutako iritziak batu ditugu hemen.

**Aida Gonzalez**



“Semeak eta senarrak euskaraz egiten dute eta nik ulertu ezin!. Horregatik ikasi nahi nuke, baina Mendaron ez dut aukerarik izan, ez delako azkeneko urteetan talderik osatu. Duela hiru bat urte sortu zen talde bat eta eman nuen izena. Horregatik eskertu dut ahalegin hau, baina niretzat berandu iritsi da. Hala ere, gustatu zait balio izan didalako ikasitakoa gogoratzeko, dinamikoa izan delako eta eguneroko gauzez jardun garelako”.

**Arantxa Cebrian**



“Hemengo naiz eta zeozertxo badakit euskaraz, baina lotsa handia ematen dit hitz egiteak. Horregatik, Arno Guraso Elkartetik euskara ikasteko interesik ba ote genuen galdetu zigutenean, ez nuen zalantzarik egin. Asko kostatzen ari zait, baina oso gustura nago bai taldekideekin eta baita irakaslearekin ere. Lagungarri zait, eta garbi daukat irailan taldea sortuko balitz berriz emango nukeela izena”.

**Maria Angeles Romero**



“Gure alabari laguntzeko behar dut euskara eta horregatik eman nuen izena euskara eskoletarako eta baita beste jende batekin harremantzeko ere. Eta egia esan, oso gustura ari naiz joaten. Oso gustura sentitzen naiz taldekideen artean eta irakaslea ere oso jatorra egokitu zaigu. Benetan, oso gustura ari naiz euskara ikasten eta irailan ere jarraitu nahi nuke, taldea osatzen bada behintzat”.

**Joana Laurencena**



“Arnoren bidez izan nuen eskolen berri eta estimatu nahi diet aukera hau eman izana. Aurrez ere ibilia ginen senarra eta biok galdezka inguruan, baina ez genuen talderik topatzen, guk zerotik hasia behar genuelako. Iruditzen zait hizkuntzak bertakotzen laguntzen duela eta nahi nuke ikasi, baina semeari eskolako lanekin laguntzeko ere behar dut. Ikaragarri gustura nabil. Gauza bakarra desio dut orain: jarraipena izatea honek”.

**Mauro Gonzalez**



“50 urte daramatzat hemen eta euskaraz jakin beharko nuke dagoeneko, baina gaur arte ez dut interes handirik jarri eta denborarik hartu ere ez. Aurreko deialdi batean eman nuen izena, baina ez zen talderik sortu. Pena handia ematen dit familian euskaldunak izanda, gai ez izatea haiekin hitz egiteko, eta oinarrizko bat ikasi nahi nuke. Gustura nabil gazte artean, eta ia ba! Emazteari ere eskatu diot euskaraz gehiago egiteko”.

**Youla Louty Fall**



“Senegaldarra naiz, ia lau urte dira Euskal Herrira iritsi nintzela, eta nahi nuke euskara ikasi. Frantsesa eta ingelesa hitz egiten ditut, eta gaztelania pixkat, baina euskara behar dut alabari laguntzeko. Irakaslearen bitartez izan nuen eskola hauen berri, eta ikasteko eta talde bateko sentitzeko ere balio izan dit hona etortzeak. Ordutegi hau ere ondo datorkit, umea ikastolan dagoen bitartean etor naitekeelako, bestela, nekez”.



## ALDO ALDAI

IRAKASLEA

### ◆ Nola moldatu zarete?

Irakasleontzat beti da arazo maila bereko ikasleak ez direnean, baina ondo moldatu gara. Ni neu gustura egon naiz eta beraiek ere hala sentitu ditut. Gaur egun, garbi daukagu helburu komunikati- boak identifikatu behar ditugula eta haiei begira lan egin. Eta horretan saiatu gara. Haurrak euskaraz ikasten ari zaizkien gurasoak dira gehientsuenak eta saiatu gara behar horretara egokitzen eskolak. Ez dira ari titulo bila.

### ◆ Astean bina orduko bi eskola-egun. 40 ordu guztira. Hasteko, ondo?

## “Gurasoei eta Udalari esango nieke merezi duela eta ez dela hain zaila taldea osatzea”

Astean lau ordu gutxienez eskaini behar zaizkio hizkuntza bat ikasteari. Hori baino gutxiagok ez du funtziona- tzen. Uste baino zailagoa da edozein hizkuntza ikastea; behin eta berriz erre- pikatu behar dira gauzak, behin eta ber- riz bueltatu behar da egindakora. Izan ere, hutsetik euskara ikasten hasten diren askok ez dute eskolaz kanpo ikasitakoa praktikan jartzeko aukera handirik eta as- tetik astera ahaztu egiten dira gauzak.

### ◆ Zer esango zenieke ikasleei?

Hasierak beti direla zailak. Aldapa handia ikusi ohi dugu eta nekagarria eta etsigarria ere iruditzen zaigu batzuetan, baina esango nieke ez dagoela aldapa hori igotzeko beste modurik, ez bada pauso baten atzetik beste bat ematea. Aste batean gaizki moldatu garela irudi- tzen bazaigu, hori ahaztu eta hurrengo- ari begira jarri behar da. Segidarik ez badauka, oso nekeza da, orain utzi eta gero berriro hastea beti delako zaila-

goa. Esango nieke aukera baldin ba- dute astean hiru saio egitea hobea litz- akeela, ordu t'erdikoak izanda ere. Beste kostu bat izango luke horrek, ja- kina, baina etena txikiagoa da. Topatu behar da, era berean, orduetegi apropos bat ere eskolak emateko. Bazkalondoko tarte hau aukera ona izan da hauentzat, eta hala adierazi dute. Gertatzen dena da orain umeei jai dutela ikastolan arra- tsaldez, eta ikasleetako batzuek zaila du- tela etortzeko.

### ◆ Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Gurasoei eta Udalari esango nieke merezi duela eta ez dela hain zaila tal- dea osatzea. Ikasleei, berriz, esango nieke ahal baldin badute segitzeko. Askok oporraldian ez dute erabiliko euskararik, eta, jakina, irailean atzera- gotik hastea izango da berriro, baina behin abiatuta, errazago moldatuko dira gero. Koskatxo hori pasatzea iza- ten da kontua.

## IBON AGINAGA IMAZ MENDAROKO UDALAREN ARDURA DUEN UEMA-KO TEKNIKARIA

### Arraunean batera egiten denean

Mendaron azken urteotan euskararen erabilerak izan duen apaltzea ikusita (laster jakingo ditugu 2021eko erabilera da- tituak), bi eginkizun nagusi ditugu esku artean: euskaldunak euskara erabiltzera animatzea eta erdaldunei bertako hiz- kuntza ikasteko bideak erraztea; gogoia piztea eta aukerak ematea. Eta hain zuzen ere, helburu horrekin gabilta elkarlanean Mendaroko Udala, Arno Guraso Elkarte, Mendaroko Ikastola, euskara taldea eta UEMA (euskara plana egin eta pausoak emate- ten).

Azken urteotan, herrian bertan euskara ikasteko taldea sortzeko zailtasunak zirela eta (ordutegi eta maila bereko gutxieneko ikasle kopurua elkartzeko zailtasunengatik), euskalduntze-alfabetatzearen gaia ia itzalpean egon da, baina azkenean ere herriko bi euskaltzaleren akulu lanari, guraso elkartearen aurrelanketari eta Udalaren ausardiari esker lortu dugu ikastaroak berrabiaraztea. UEMA, euskaltegia, Udala eta Arnoren arteko zubi lana egiteaz arduratu da (UEMA eta Jaurilaritza, elkarlanean, euskalduntze-alfabetatzeari buruzko ikerketa bat egiten gabilta; eta horrek, gerora euskara taldeak sortzeko bideak erraztu ditzakeela uste dugu).

Arnok, aurrelanketa egiterakoan, gurasoen beharrak eta aukerak begiz jotzeak asko erraztu zuen bidea. Gero, Udalak herri mailako deialdia egin eta ordutegiak adosteko aukera eman bazuen ere, gutxienekoa bermatuta zegoen. Udala, batez ere, az- piegitura eta baliabide ekonomikoez arduratu da. Egoerak eskatzen zuen neurriko apustua egin du eta hori eskertzekoa da. Helburu nagusia euskara eskolak berriz martxan jartzea zen; euskaraz ikasteko gogoia zutenei aukera hori ematea eta irailean hasiko den ikasturtean gutxieneko ikasle kopurua egoteko giotze ikastaro bat eskaintzea. Eta lortu dugu!

Entzun dudanez, oso gustura dabilta ikasleak; jarraitzeko gogoz. Horretarako, ordutegiak zaintzea izango da gakoetako bat. Eta noski, denok elkarrekin aurrera egitea!



## Ezohiko egoeran, ezohiko Trinitateak

Ez dira ohiko Trinitate jaiak izan, baina hala ere, jai giroa igarri da Elgoibarko kaleetan. Jende pilaketa handiak biltzeko arriskua zuten ikuskizunak kendu egin dituzte egitarautik, eta segurtasun neurriak hartuta antolatu dituzte hainbat ekitaldi. Besteak beste, txistularien kalejira, Udal Musika Bandaren kontzertua, artisau eta nekazari azokak eta su artifizialak izan ziren asteburuan. Hemen duzue asteburuko argazki errepasoa. Argazki gehiago: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)





**Bertan Bilbol:** Espero ez den norbait aurkitzean edota ahotan daukagun pertsona agertzen denean esaten da.

## Agortu dira fabula musikatuak irakurraldirako gonbidapenak

Fabulen irakurraldi musikatuak antolatu ditu Elgoibarko Izarrak ekainaren 16 eta 30erako, Udalaren laguntzaz, eta antolatzaileek jakinarazi dute dagoeneko amaitu direla gonbidapenak. Kultur Etxeko sotoan izango dira bi saioak, eta 35 bat lagunentzako lekua egongo da. Etorkizuna irudikatzeko fabulak izango dira biak, eta, horretarako, Harkaitz Cano eta Uxue Alberdi musikari bana lagun dutela etorriko dira gurera. Maite Larburu etorriko da Canorekin, eta Iban Urizar Alberdirekin.



*Kintsugi* fabula izango da lehenengoa: "Demagun, hiru hamarkada barru, sortzen duen energia baino kontsumitzen ez duen gizartea dela gurea. Energia berriztagarriak nagusitu dira eta kutsadura errotik moztu. Baina belaunaldi batentzat utopia zena ez da inoiz hurrengoarentzat aski izango. Aurrekoekiko kritiko izatera derrigortuta daude berriak. Eta zaharrak berriz, kritiko diren horiekiko esker ona adieraztera. Horraino teoria...".

Bigarrena, *Ibaia* fabula izango da: "Playboy arkitekturaren lema hartu – Gizon bat aldatu nahi baduzu, aldatu haren apartamentua– eta herriaren eskalara eraman zuten. Kaleak, etxeak, plazak, leihoak moldatu zituzten, espazioa antzaldatu portaerak eraldatzeko. Herria gorputz fabrika gisa ulertu zuten. Baina ez zuten denek jasan herri feministaren utopia: laster hasi zen gizon-ihesa, ospa egin ez zutenak Troiako auzunean gotortu ziren...".

## Herriko Antzokiko aldagelak berituko dituzte

Elgoibarko Herriko Antzokiko kamerinoak berritzeke lanak lizitaziora atera ditu Elgoibarko Udalak. Lanen kostua 45.056,92 eurokoa (BEZa kanpo) izango da eta ekainaren 14an amaituko da proposamenak aurkezteko epea. 1994an inauguratu zuten Herriko Antzokiak bi aldagela ditu. Bata, aldagela gisa erabiltzen dena, eta bestea, komunak eta dutxak dituen. Udalaren asmoa da bi espazio horiek goitik behera berritzea eta aldagela zein dutxa eta komunak bietan jartzzea, eta ez, orain arte bezala, espazio desberdinetan bananduta. Lizitazioa eskuratzeko duen pertsona edota enpresak bi hilabeteko epea izango du lanak bukatzeko.

## Musika Eskolako ikasleen jaialdia gaur, Herriko Antzokian

Inazio Bereziartua Musika eta Dantza eskolako ikasleek ikasturte amaierako jaialdia egingo dute gaur, Herriko Antzokian. Ekitaldi honetara joateko gonbidapenak aurkeztu behar dira antzokiko sarreran. Musika Eskolako ikasleen artean banatu dituzte gonbidapenak, baina Musika Eskolan bertan ere badaude gonbidapen gehiago interesduentzako.

## Lezoko Aurreku Txapelketan hartu dute parte Elgoibarko dantzariak

Inazio Bereziartua dantza eskolako dantzariak Lezoko aurreku txapelketan hartu zuten parte joan zen zapatuan. Hainbat herritako dantzariak parte hartu zuten, besteak beste, Andoain, Lizartza, Legazpi, Zizurkil, Pasai Donibane, Amasa-Villabona, Lezo, Ataun, Anoeta eta Elgoibarkoak. Unax Ansola, Uxue Cabrera, Amaia Mendia, Maialen Pizarro, eta Jon Etxeberria izan ziren gure ordezkariak. Inazio Bereziartua dantza eskolako arduradunek esan dute ondo aritu zirela Elgoibarko dantzariak, eta bereziki, Unax Ansolak bere mailan eskuratutako bigarren postua nabarmendu zuten.

Lezoko txapelketa izan da ligako azken kanporaketa, eta datozen asteburuetan finalak jokatuko dituzte. Ekainaren 6an A eta B sailetakoez dantzatuko dute Errenterian, eta ekainaren 19an, Legazpin lehiatuko dira D Sailekoak. Hauek izango dira finaletan gure ordezkariak: Unax Ansola eta Elaia Etxaniz A eta B sailetan, eta D sailean, Malen Galarraga, Jon Etxeberria eta Eneko Etxaniz.





## Egunez aldatu dute Munleten kontzertua, eta ekainaren 12an izango da, San Agustin kulturgunean

Mendaroko kultur eskaintza aberasteko asmoz, *Begiekin Entzutekoak* musika zikloa antolatu du Gararock taldeak, Mendaroko Udalaren laguntzaz. Ziklo horren barruan lau kontzertu antolatu dituzte, eta Munlet taldearen emanaldia izango da azkena. Egunez aldatu dute kontzertua, eta, beraz, ekainaren 12an izango da, 19:00etan, San Agustin kulturgunean. Mendaroko bikoteak bere azken lana aurkeztuko du. Kontzerturako sarrerak 3 euroan jarri dituzte salgai, Puxika gozoki dendan eta Uztargi tabernan. Muga, Testura eta Mursegoren kontzertuak eskaini dituzte orain arte, eta Munlet bikoteak itxiko du zikloa.



## FutbolisTOK bakarrizketa eskainiko du Zuhaitz Gurrutzagak Mendaron, ekainaren 26an

Mendaroko San Agustin kulturguneko oholtzara igoko da Zuhaitz Gurrutzaga ekainaren 26an, *FutbolisTOK* bere azken lana aurkeztera. Lehen mailako futbol jokalaria izan zen garaiko pasarteak ekarriko ditu gogora, eta garai hartan bere azalean bizi izan zuen TOK nahasmenduari buruzko kontuak ere izango ditu mintzagai umoregile aiastiarrek. 18:00etan izango da emanaldia.

## Zirku musikala, domekan, Mendaron

Landarbaso abesbatzak zirku musikala eskainiko du domekan, Mendaroko Udalak antolatuta. Bi emanaldi egingo dituzte, 16:30ean lehenengo eta 18:00etan bigarrena. Emanaldiko ipuin musikalaren aurkezlea triste dago, emanaldian lagundu behar zioten artistek huts egin diotelako. Horregatik, ikusleen laguntza eskatuko du zirku musikaleko hiru protagonista nagusien papera egin dezaten eta horien abestia abestu dezaten. Sarrerak Puxika gozoki dendan daude salgai, euro batean.



## Elgoibarko Gaztelekuak udarako antolatu dituen ekintzetan izena emateko epea zabalik dago

Elgoibarko gaztelekuak hainbat tailer eta ekintza antolatu ditu udaldirako, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Guztira hamaika ekintza daude aukeran, eta 2003tik 2008ra bitartean jaiotako gazteek eman dezakete izena. Ekintzetan ekainaren 6ra arte eman daiteke izena [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) atarian edo eskuorriko QR kodea erabilita. Tailerren kasuan, ekainaren 13ra arte dago izena emateko aukera, Gaztelekuan bertan. Informazio gehiagorako 943 743 228 tefonora deitu edo 628 170 330 zenbakira whatsapp bidali edota [gaztelekua@elgoibar.org](mailto:gaztelekua@elgoibar.org) helbidera idatzi behar da.

### Tailerrak

- Maskara tailerra: ekainak 22- 25.
- Antzerki tailerra: ekainak 28 – uztailak 2.
- Slackline Azkuen: uztailak 7.
- Kaja tailerra: uztailak 9 – 16.
- Motxila tailerra: uztailak 12.

### Ekintzak

- Zaldian ibilaldia : ekainak 30.
- Oria ibaian Kayak jaitziera: uztailak 5.
- Laser gunera irteera: uztailak 15.
- Ongravityra irteera: uztailak 19.
- Mundakara irteera: uztailak 20.
- Surf ikastaroa: uztailak 26-30.

## Bera Bera eskubaloi taldean jokatu du June Loidik hurrengo bi denboraldietan

**G**uerreras Iberdrola Ligako talde txapelkunak, Super Amara Bera Bera taldeak, hurrengo denboraldirako egin duen lehen fitxaketa izan da June Loidi elgoibartarrarena. Donostiako taldeak bi denboraldirako hitzarmena adostu du Loidirekin. Azken asteetan bolo-bolo zebilen informazioa ofizial egin zuen aurreko astean Bera Berak. 21 urteko hegaleko elgoibartarrak Zubileta Evolution Zuazo talde bizkaitarrean egin ditu azken hiru denboraldiak, Sanlok utzita. Super Amara Bera Beraren ustez, June Loidik taldea indartuko du, batez ere defentsan. Defentsako lanean nabarmendu dela azaldu dute taldetik, baina erasoan ere egin deza keela ekarpenik, ligako aurreneko fasean bere taldeko golegile nagusia izan zelako, partidako lau gol sartuta. Zuazoko golegile nagusia izateaz gainera, Guerreras Iberdrola Ligako laugarren goleatzaile onena izan zen, Ligako lehen fasean. 58 gol sartu zituen. Atletico Guardes taldeko Paulina Perez izan zen golegile onena, 84 golekin. Espainiako eskubaloi selekzioarekin maila guztietan jokatu duela ere azpimarratu du: Etorkizunekoan, jubenil, junior eta gorenean. Horiez gainera, Objetivo 20-21 ekimenean ere sarritan egon da. Liga txapelketa zazpigarren aldiz irabazi berri duen taldera jauzi egitea izango da orain Loidirentzako erronka, eta Europako txapelketetan aritzeko aukera ere izango du Imanol Alvarezek zuzentzen duen taldean.



## Iraolagoitiak eta Ibarrak 22-15 galdu zuten Udaberri Pilota Sariko partida



Udaberri Pilota Sariko partida jokatu zuten Mendaron bari-kuan. Haitzart Iraolagoitia pilotari mendarorarrak eta Ibon Ibarra eibartarrak osatutako bikoteak Andoaingo Gazteleku taldeko Gaztañaga eta Arrillaga izan zituzten aurkari. Partida estua jokatu ostean, andoaindarrek lortu zuten garaipena, 22-15eko emaitzarekin. Senior mailako Lehen Mailako pilotarien arteko partida ere jokatzekoak ziren jaialdi berean, baina bertan behera gelditu zen. Jaialdia Mendaroko Pilota Eskolako pilotari gaztetxoekin partidekin hasi zuten.

## Joseba Etxeberriak utzi egin dio Bilbao Athleticen entrenatzaile izateari

Hiru denboraldirako kontratua adostua zuen arren, hirugarrenkoa ez betetzea erabaki zuen Joseba Etxeberriak eta hala jakinarazi zien Athleticen arduradunei joan zen astean. Talde zuri-gorritik esan dute entrenatzaile elgoibartarrak nabarmen lagundu duela harrobiko taldearen kirol lorpenetan. Taldea Bigarren Mailara igotzeko sailkapen faseetarako sailkatu da azken bi denboraldietan. CD Badajozek kanporatu zuen aurreko denboraldian, eta oraingoan, Burgosetik kanporatu du. Filialetik lehen taldera pasatu diren jokalariek trebatzen eginiko lana eskertu eta aitortu dio Etxeberriari Athleticetik. "Athletic Clubek eskerrak eman nahi dizkio Joseba Etxeberriari; izan ere, futbolari gisa ikono bat izan da eta, ondoren ere, dena eman du gure koloreen alde. Era berean, zorterik onena opa diogu etorkizunean futboleko egongo duen ibilbidean". Etxeberriak ere zabandu du agur mezua, sare sozialen bitartez. "Agur esateko ordua iritsi da. Bi denboraldi oso onak izan dira arlo guztietan. Askok ikasi dut eta momentu oso onak igaro ditut. Eskerrak eman nahi dizkiet eguneroko lanean ari direnei eta klubari ere bai, hiru urtez entrenatzaile izateko aukera emateagatik. Zorte handia opa dizuet bihotzez. Aupa Athletic!". Orain erronka berrien zain dagoela azaldu du.







**B**egoña Aranberrik lagatakoa da gaur hemen zuekin partekatu nahi dugun argazki dotore hau. Lizundia azpi baserriko lurretan egindako argazkia da ustez, gari-jote baten ondoren. Ez zaigu erraza izan argazkikoen izen-abizenak batzea, baina hona hemen identifikatzea lortu ditugunak.

**Zutik:** Pilar Uria, Asuncion Ansola, Fakunda Aranberri, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Benito Ansola, ezezaguna, Tomas Ansola, eta Jose. **Behean:** ezezaguna, Geronimo Aranberri, Patxi, Bautista (Lizundia azpikoa), ezezaguna, eta Miguel Juaristi.



## Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

Barreneko bulegora ekarri:

Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk.



**LANA.....**  
**Eskaerak**

Emakume euskalduna eskaintzen da umek zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.

☎ 685 731 164

Emakume euskalduna, adinekoak zaintzeko prest. Erizain laguntzaile titulua daukat. Esperientzia eta erreferentzia onak.

☎ 660 511 781

Lan bila nabil. Lanerako ordutegi malgua daukat.

☎ 632 915 336

Neska euskalduna eskaintzen da ekainetik abuztura haurrak zaintzeko. LH-n klase partikularrak ere emango nituzke (Elgoibarren edo Mendaron). Berehala hasteko aukera, eta ordutegi malgua.

☎ 630 915 031

**Eskaintzak**

Jangelarako zerbitzari euskalduna behar da Elgoibarko taberna batean.

☎ 943 741 230

**IBILGAILUAK.....**

Lambretta etxeko motoa salgai. 200cc. Paperak legez, eta oso egoera onean.

☎ 686 847 166

**ETXEBIZITZA.....**

Etxe bat hartuko nuke alokairuan.

☎ 660 458 756

**BESTELAKOAK.....**

Erlojua galdu dut Herriko Antzokitik Lerun alderako bidean. Pultsera beltza dauka eta digitala da. Norbaitek aurkitu badu, deitu dezala, mesedez.

☎ 676 393 351

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€.

Iragarkia irertratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkia irertratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p style="font-size: small; margin-top: 5px;">Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzkoaldea Euzko Administrazioaren Arakaleko Kontakaria</p> <div style="text-align: center; margin-top: 20px;">  <p style="font-weight: bold; font-size: 1.2em; color: white; background-color: black; padding: 5px; display: inline-block;">ROSA Ma PINTADO</p> </div> <p style="font-size: x-small; margin-top: 10px;">Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</p> <p style="text-align: center; font-weight: bold; font-size: 1.2em; margin-top: 10px;">660 969 679</p> <p style="text-align: center; font-weight: bold; font-size: 1.1em; margin-top: 5px;">rosapf@telefonica.net</p>	<p style="font-weight: bold; margin-top: 0;">Senar-emazteak gara, eta nire senarrak lur-sail bat jaso du amarengandik dohaintzan. Lur horretan obra egin nahi dugu etorkizunean. Nire galdera honako hau da: lur-saila senarrarena izan arren, obra berri hori irabazpidezko ondasun izendatu dezakegu, edo lur-sail hori dohaintzan eman duenak egin behar du hori? Nola egin genezake nik, bikotekideak alegia, obra berri hori egiteko kapitala jarri duela jasota gelditu dadin?</p> <p>Lur-sail hori dohaintzan jaso duena lur-sailaren beraren jabea ez ezik lur horretan eraikiko denaren jabea ere bada, bikotekideari obra hori egiteko jarri duen dirua itzultzeko betebeharretik libre gelditu gabe (adibidez, kreditua eskatzen bada irabazpidezko ondasuen kontrakoa eskatuko da). Obra hori irabazpidezkoa izateko, obra berria lur-sailarekin batera izendatu beharko da bikotearena, edo bestela, lur-saila bera jarri lehenengo bikotearen izenean eta gero egin obra berria.</p> <p><b>AHOLKUA: Etxaldea bikotearen izenean jartzeko bi modu daude: salerosketa edo dohaintza. Galdetu iezaiozu notarioari zeintzuk diren arteko aldeak eta bakoitzak zer gastu suposatzen dituen, ezer egin aurretik.</b></p>
<div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;">  <div style="text-align: right;"> <p style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</p> <p style="font-size: 0.8em;">San Bartolome, 2</p> </div> </div>	





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira  
BARRENeke bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo ☎ 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Peio!**  
Ilgandean 5 urte!  
Muxu handi bat  
aitatxo, amatxo  
eta bereziki, Da-  
nelen partetik.



Zorionak, **Leire** eta **Jon!** 3 eta 6 urte!  
Oso ondo pasa eta muxu handi bat  
etxeko denon partez!



Zorionak, **Maddi** eta **Haizea,** gaur  
11 urte bete dituzuelako. Muxu asko,  
etxekoan partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



**943 743 704**  
**688 769 657**



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean

**Galdetu prezioak  
eta gustura erantzungo dizugu.**

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR



## EXPRESS ESKAINTZAK!

**FAGOR 3FE-8212**  
**ARROPA**  
**GARBIGAILUA**



**349 €**



- MaxLoad funtzioa: LCD pantailak gehieneko karga erakusten du, edo pisua kilotan.
- Segurtasun-blokeoa. ● Garbitzeko 10 programa.
- Gaitza bakeroentzako programa. ● Kotoi programa.
- Garbiketa eraginkorragoa izan dadin garbigarria gaitzea eragozten duen balbula da AquaBall .
- 8 kg karga. ● 1.200 rpm.

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

## 4 BARIKUA

**18:30** Erakusketa: 'Zubiak eraikitzen'. Hilaren 8ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

**19:00** Musika Eskolako talde finkoen kontzertua. Herriko Antzokian.

## 5 ZAPATUA

**10:00** Organo emaile egiteko mahai, King-Kong azpian. Alcer Gipuzkoa elkar-teak antolatuta.

## 6 DOMEKA

**16:30** eta **18:00** Zirku musikala, Mendaroko San Agustin Kulturugunean.

## 9 EGUAZTENA

**19:00** 'Larrugorritan' telesailaren aurkezpena eta mahai-ingurua aktore protagonistekin. Herriko Antzokian.

## 11 BARIKUA

**19:00** Zine foruma: 'The tale'. Haizea emakume taldeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Loredi Salegik dinamizatuko du.

## Maiatzean hildakoak

- Hilario Agirrebeña Aulestiarte**

91 urte, maiatzak 5

- Ana Maria San Martin Aranberri**

79 urte, maiatzak 5

- Valentin Peñalba Castañares**

89 urte, maiatzak 7

- Manuela Aizpiri Agirrebeña**

92 urte, maiatzak 21

- Antonio Astigarraga Lizarralde**

88 urte, maiatzak 21

- Carmen Bastarrrika Agirrezabal**

86 urte, maiatzak 31

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

**Egunez: 09:00-22:00**

**Iluntzean: 20:00-22:00**

**Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)**

4 BARIKUA	5 ZAPATUA	6 DOMEKA	7 ASTELEHENA	8 MARTITZENA	9 EGUAZTENA	10 EGUENA	11 BARIKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti *Garitaonandia	Egunez *Oruesagasti	Egunez Arriola	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Barrenetxea	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea

\* Fernandez:  
Herriko Enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)  
943 201 912

## BARREN sare sozialetan



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria





# ► Gremioen gida

## ARROZTEGIAK

**BIENA S.L.**  
ARROZTEGIA

Ermuarenbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
[www.biena.eus](http://www.biena.eus)  
[info@bicna.eus](mailto:info@bicna.eus)



**Ulazia**  
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industrigunea, 1-0/ 1-P  
943 740 547



**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industrigunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485  
[www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)

**MAR**  
ARROZTEGIA

Olaso industrigunea, 17 beheak  
943 531 471  
609 054 978  
[carpinteriamar@hotmail.com](mailto:carpinteriamar@hotmail.com)



Aroztegia Carpintería  
**ASIMA**

Ermuarenbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
[asimarooztegia@gmail.com](mailto:asimarooztegia@gmail.com)

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**

Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- ◉ Proiektuak eta erreformak
- ◉ Sukaldeak
- ◉ Gremioen koordinazioa
- ◉ Obren zerbitzu integrala

943 744 019  
605 713 168

**IGELTSERITZA**

**A. Garate**

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua  
[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia  
Elgoibar

**610 226 651**

**PINTURA**

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120  
[biok@biokdekorazioa.com](mailto:biok@biokdekorazioa.com)

► Aroztegiak  
► Erreformak

## ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**

**BULEGOA ETA ERAKUSKETA**  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585  
[landa@pagoagasa.com](mailto:landa@pagoagasa.com)  
[www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)

**BILTEGIA**  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
[toler@pagoagasa.com](mailto:toler@pagoagasa.com)

ELGOIBAR

**ONGI** Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 1  
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
[ongi@ongielgoibar.com](mailto:ongi@ongielgoibar.com)  
[www.ongielgoibar.com](http://www.ongielgoibar.com)

**SANTANA**

 Igor Santana

**ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.A.**

Urazandi kalea 17, beheak  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)

► Igeltseritza  
► Pintura

## ELEKTRIZITATEA

**egoluz**   
ELEKTRIZITATEA S.L.

**Andres: 630 957 345  
677 512 462**

Pedro Migel Uruzuno, 14 beheak  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
[ego.fuz@hotmail.com](mailto:ego.fuz@hotmail.com)

**LEIHOAK**

**LODOSO  
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
[lodosofj@gmail.com](mailto:lodosofj@gmail.com)  
Tel.: 943 74 34 90

► Leihoak  
► Iturgintza  
► Elektrizitatea



# 22. urteurrena

## Eskerrik asko!

Portxe-jardineko haiman bazkaldu edo afaltzeko aukera.

Aiastia auzoa z/g - **943 743 102**

*22 urte beteko ditugu ekainean, uda betean.*

*Ez da urte gozoa izan inorentzat azkeneko hau, baina gu geu zorionekoak gara.*

*Zorionekoak gara, egoera honetan ere, gertu izan zaituztegunak.*

*Horregatik, gure eskerrik beroena agertu nahi dizuegu bezero izan zaituztegun guztioi.*

*Belaustegi jatetxeko familia osoaren partez, mila esker, bezero!*

*Beti da gozoa zure beroa sentitzea eta poza ematen du urtebetetzea elkarrekin ospatzeak.*



BELAUSTEGI BASERRIA  
— jatetxea —